

Bariazioak

(*Oroitzapen desmemoriatuaren egunen gainean*)*

Ibon Sarasola 1972 / Koldo Izagirre 2014

Idazlea / Escriptor / Escritor

orain, begiak erdi-ilunera ohitu direnean, beha egiozu erlojuari. har ezazu zigarro bat, utz ezazu paketea mahai gainean eta itxaron ezazu. inguruko mahaiak hutsik daude ia denak, harritzen zara, goizegi da agian. ez itzazu alkandoraren goiko botoiak aska, ez baitu oraino berorik egiten. beroa gero etorriko da, jendearekin, hitz eta irrien zarata zoroarekin. kanpoan euria hasi du, zirimiria fina, hemengo jendearen izatemoldea markatzen duen lanbro hezea, plaiartzeko amoranteak uxatzen dituena,

amoranteak erakarri egiten ditu zirimiria finak, haientzat sortua da, gero helduko dira argiak eta haien itzalak, baina bitartean aterkiaren babesa utzi eta lasterka zoro bat egin. hemen beti da horrela. zirimiria maitaleen giroa da, gu bion aurreneko dutxa, hiriko poeta guztien ilunabarretan ageri da, tamarizak edo hondartza hutsak bezala. ondoren, badakizu, grog bana eta segidako guztia

itxaron ezazu zeure aulkian eseririk, eska ezazu edozer gauza, eta ez zaitez egon denbora guztia ateari beha, ez baitira oraino zazpiak. ez zaitez has txaketa kentzen, ez du oraino berorik egiten. beroa gero etorriko da, jendearekin, hitz eta irrien zarata zoroarekin, kearekin, musikaren estridentziarekin. kanpoan euria ari du, zirimiria fina, hemengo jendearen izatemoldea markatzen duena, haien sinoaren tristezia gristatzen duen zirimiria fina.

margoetan izaten da zirimiria tristura, euskal eskolako erdaldunen grisantza hori, edo barojaren nobeletan, ez dut pasarteak aipatzearen gustu txarrekoa eginen. zirimiria eta iratzearen gorraila udazkenean, estetika oso bat, tristezia, nostalgia. koldarkeria historikoa justifikatzeko natura zanpatzaile hori, lantegietan beharginen antolakuntza garatzen den bitartean, milaka papere-tan dago erakutsia, milaka lanuztetan, milaka kanporatzetan, milaka atxilotzetan

* Sarasola, Ibon. 1972. «Oroitzapen desmemoriatuaren egunek II.» In Askoren artean. *Euskal Literatura* 72. Donostia: Lur.

plaiertzeko paseoa zenbait aterki baizik ez da ezer ikusten. zenbait aterki, ezer ez besterik. itxaron ezazu zur ilunezko aulki arraro horretan eseririk, har ezazu beste zigarro bat, bigarrena. ia zazpiak dira eta laster etorriko da. zu konturatu gabe inguruko mahaiak betetzen joan dira, musikaren estridentziaren eraginpean bezala. jendearekin beroa hasi da, baina ez oraino hitz eta irrien zarata zoroa, kea, paretetako harri faltsuen izerdia. guzti hori gero etorriko da eta beroa soportagaitza izanen da igande arratsalde honetan. kanpoan ez du atertzen, zirimiria fina euri bihurtu da, hemengo jendeek hain ongi ezagutzen duten euri latza. plaiertzeko paseoa ez da jadanik ezer ageri, azkenengo aterkiek ere alde egin dute, duela denbora.

bi zaldiko citroen gris batean zindoazten, bikote arrunt bat, auto banal bat, pegatinarik gabekoa, semaforoan bakarrik goiz hartan. neska gidari, zu hizketan aurrera begira, kontu sakonak, nola esan, nola hitz egin bestearen gorputzaz, errudunaren sentimendu okaztagarria. zuek biak 1972ko erreterian zehar esku bakarrarekin barrikadarako iraultzen ahal zen kaskailu baten barruan beren urduritasuna disimulatzen. aurrera jarraitu zenuten irun bidean, mugarantz, mugarantz bai, muga, muga, gure salbazioa, gure harresi mesedegarria, gure debekatuen atea, gure liburu guztien inprimategia, gure arma guztien zuloa, gure matxura guztien atelierra

ilundu du ia, ez dirudi udaberriaren hasieran gaudenik. utz ezazu bakean pospolo kaxa, eta itxaron ezazu zazpiak eta laurdenak arte. Barbarak etorriko dela esan badizu etorriko da, ez zaitez ardura, otoi. begira, atean dago, eskaileraren goi aldean, gortinaren gainetik aurpegia ikusten zaio. bakarrik etorri da? bai. lehengo eguneko abrigoarekin? bai, bai. beha iezaiozu eta nabari ezazu haren aurpegian zerbait ezezagun, zerbait ezkutu haren keinuan, ikus ezazu.

irunen banandu zineten, zuk ezin zenuen muga pasatu. Barbara bakarrik abiatu zen zubirantz eta donibane lohizuneko hondartzan, hondartzan bai, ezarri zenuten hitzordua. garaiz zenbiltzaten, aspaldiko lagun bat zeneukan zuk hantxe zain beraraino eramateko. gero larrundik barrena azalduko zinen Barbara laguntzeko, Barbararen eskua estutzeko plaia zabal batean

jakin nahi zenuen? baina ez, hitz egiozu eta eraman ezazu kanpora, horrenbeste jendekin bero handia egiten baitu hemen, bero soportagaitza jadanik. kanpoan atertu egin du baina plaiertzeko paseoa hutsik dago. eskuin aldeko etxexkak abandonatuak dirudite, geldirik, garai hobeak hel daitezen zain agian. hotzikara bat bere gorputzean, pasa ezazu orain zeure besoa haren gerritik, senti ezazu haizea zeure aurpegian, paseo bazterreko banku guztiak bustirik daude, ezin zarete eseri, senti ezazu haizearen hotza zeure gorputzean, zazpi eta erdiak erlojuren batean, arropen barna sartzen den negu haizea.

jakin nahi zenuen, noski, haragian barna sartzen den zera hori, ezin kendu pentsamendutik. mingarria izan behar du, tiro bat bezala sendaketa egiten hasten zaizkizunean, edo autoz aldatu behar duzuela gogorarazten dizutenean. nahiago zenuke bertan lagako bazintuzte, utzi hemen bertan odolusten, isilik egon hadi, ez galdu astirik nirekin, zorabio hori barrua zuztarreraino ziztatzan dizun minarekin bat. jakin nahi zenuen, horrek hartu zizun burua Barbara hendaiarantz abiatzen ikusi zenuenez gero, bestelako pentsamendurik ez arratsaldean azaldu zen arte, eta jakin nahi zenuke

segi ezazu isilik neon argiko farolen azpian, entzun ezazu itsasoaren higidura, uhain lehertuen masa zuria, jaitsi zaitez hondarrera. plaiak ere abandonatua dirudi udaberriaren hasierako egun honetan: iltzetzar eta burdin herdoildu, kortxo heze, botila, taula usteldu, sentitzen du zure besoa bere gerria inguratzen? hitz egiozu orain, baina ez iezaiozu oraino zeure barnean sentitzen duzuna esan. hobe beste zerbait, edozein frase banal: Getarian ontzi bat ari da porturatzen, edo, oinak hondarrean sartzen zaizkit, eta bera erantzuten agian. gero berriro isiltasuna, uhainen ihardukia entzutera uzten duena. itsasoratzen zaren eran, zeure oinen azpian sentitzen duzu, hondarra hezeagoa da. esaiozu orain

ez dakit zer den bala bat ateratzea, baina ez dut uste horrekin aldera litekeenik, horixe erantzun zizun, eta zuri begiratu gabe jarraitu zuen. horrela ibili zen hondartzan sartu zineten unetik, hareari burumakur edo itsasoaren ilunari edo бага urrunei, eta бага haiek baino urrunago baztertua zu. baina zerk eraginik ordea? hitzordua huts egiteak? alferrik ziren esplikazio haiek? bera kontrol ez bete zegoen, sinesten ez zizula ere bururatu zitzaizun. baina ez zitzaion axola, errazegi onartzen zituen zure hitz guztiak, zu esan ezineko lanen batean irudikatzen zintuelako menturaz, edo benetan ardura ez zitzaiolako

ea nor heltzen den lehen ertzera, eta berak
zu, jakina, eta zuk
abantaila emanen dizut, edo beste zerbait, eragiten, eta berak
ez, zuri so, nahiago dut honela

egoera hura apurtzeagatik esan zenuen, umekeria bat, gizonetzko bakarririk egiten dakizkigun zabarkeria horietarik bat, lasterka egitea proposatu behar gorputz hari. ez zenekien zer egin, hitzak hautatu beharrak lardaskatu zizun hondartzaren gaineko ibilia

ingura ezazu haren lepoa, haren ilea zeure behatzetan. geldi zaitez, ertzera heldu baitzara, han eta hemen hondakinen harat-honata, marea apalaren erritmoari jarraikiz, haren ilea zeure behatzen artean.
zeuregana ezazu haren burua,
laztan ezazu haren ilea, behin, bitan, hirutan,
haren beharria, ausart zaitez,
haren masaila,
murmura ezazu edozein frase banal,

adibidez, atxilotu bazintuzte? berak esan dezan, noski, atxilotu izan banindute umezurtz geratuko zinela esan nahi duzu? berak esan dezan, noski, biok atxilotu izan bagintuzte okerragoa izango zen, okerrago niretzat, nola esplikatu behar nuen nik kasualitate kate batek batu gaituela biok? berak esan dezan, noski, baina zergatik atxilotu behar ninduten ni?

aditu ezazu haren usaina, herts itzazu begiok, karizia ezazu zeure ezpainez haren masaila behin eta berriro eta senti ezazu orain haren besoa zure gerrian eta haren ahotsa, kontent, alkohol usaina dario zure ahoak, eta zuk ez, baso bat besterik ez, zure zain eta haren irria, kontent, beste masaila orain, haren irria, senti itzazu haren ezpainak zeure aurpegian, bai, behin eta berriro, haren besoa zeure gorputza bortizki inguratzen, bai, ausart zaitetz, haren ahoa eta zeurea, instant batez, irribarre bat eta hasperen bat, UHAIN BAT, kontuz, ZEURE OINETARA, berezi zaitetz, ah, madarikat, ia ia, oin bat busti zait ikus ezazu zeure ondoan haren gorputza, zerbait arraro sentitzen duzu, zerbait arraro.

eta izugarria egin zitzaizun esaldia, oin bat busti zait, bestelako irudi bat etorri baitzitzaizun, isuri bat, odoluste bat izterrean behera, sekula ez bezalako zurbil ikusi zenuen orduan haren masaila instant batez. hildakoaren despedida ziren ezpain haiek ilun, irri hura gezur, haren gorputza, haren gorputza

baina ez, mundua mundu deino horrela gertatuko da, hitz berberak, oroitzen berberak, gogoeta berberak. eta haatik beti berri. eta bestela zergatik lehen egunean, duela zenbait aste, zergatik telefonoz duela zenbait egun ba al zatoz kafe bat hartzera? ezin dut orain, berandu da lehenago tristerik zeundela iruditu zait ez, ez zen ezer, bueno bai, banoa, ordu laurden bat barru lehengo tokian

Barbarak hitz egitea erabaki zuen zure ahotsa entzundakoan, ez gordetzea berarentzat biona zen arren berea eta berea bakarrik sentitzen zuena, ez baitzen bala bat. lau egun iraunen zuela esan zioten eta bakardadea izaten zela okerrera, eta erizainen begiratuak, eta ondoko hustasuna eta desiraren galera

oroitzen zara, karizia ezazu emeki, haren espalda, Barbara, ez zebilen inor kalean, ongi sentitzen zinen berarekin, haren ondoan, zerbait tarareatzen hasi zinen etxerantz berriro haren espalda emeki, Barbara, senti ezazu berriro haren besoa zeure gerria inguratzen, isilik euria hasi zuen eta zeure zamarra bion gainetik jarri zenuen, haren besoa sentitu zenuen zeure gerria inguratzen oroitzen zara, karizia ezazu emeki haren espalda, Barbara, karizia ezazu emeki haren besagaina, haren okozpea. haren bularra? bai. eta orduan ikara hura, haren azalaren asaldamendu ezkutua, ni zurekin

hitzaurrea izan zen, luzea, galdera errepikatu hura, esan behar zizunaren ataria, asaldamendua baretzeko estrategia, zu nirekin

jakin nahi duzu? baina ez. ez dakizu zer esan nahi duen horrek. ez da inoiz jakiten, dena alda dena hauts daiteke gaueetik egunera, egunetik gauera, instant batean, eta orduan antsia hura, larridura esplikagaitz hura, hari mehe batetik zintzilik bezala, hitz batek, keinu gaizto batek ezeztatu dezakeena, memento batean gal daitekeen ondasuna, zerbait gertatu da eta betiko galdua dela zeuretzat. baina ez, irakur ezazu haren aurpegian, har ezazu haren eskua zeure eskuen artean, haren behatzak zeure behatzen artean, herts itzazu, orain bai orain ez. esaiozu eskuak hotzak dituzu, esan ezazu zerbait, apur ezazu isiltasun salatari hori, bete ezazu, baina ez iezaiozu sentitzen duzuna esan. Ahalegin zaitetz igartzen, ahalegin zaitetz imajinatzen, ahalegin zaitetz oroitzen, bai ahalegin zaitetz oroitzen.

nekez eta malkoren bat xukatuz esan zizunaz bestera, zure adostasunak ezertarako balio izan ez balu bezala edo, okerrago, adostasun hark errebelatu izan balu bezala, ez dut galdu nahi esan zuen ohatilan zetzala, barruan zermananaren lehen goitikoa izan zen. beste zerbait espero izan balute bezala behatu zioten. lasai galdetu zion haurdunaldiaren jarraipena eginen ote zion, eta bai pozik erantzun zion bizardun gazteak eskua bizkarrean tinkatzen ziola. hitzarmen bat izan zen, medikuago sentitu zen medikua eta Barbarak pauso zoro bat egin zuen behingoz bere bizi zintzoan, antsia hura, larridura esplikagaitz hura, zurekin hondartza bakartietan ibiltzea baino arriskutsuagoa

konta ezazu, bat,
bi,
hiru, senti ezazu ene bihotza,
lau bost
sei,
zazpi, senti ezazu ene bihotza, Barbara,
zortzi,
bederatzi,
hamar,
hamaika, senti ezazu ene bihotza,
entzun ezazu itsasoaren mugimendua, imajina ezazu uhain lehertuen masa zuria, karizia ezazu berriro, laztan ezazu, senti ezazu haren mihia, hortzak, hotz egiten du, dardarka, lant ezazu haren gorputza zeure besoetan. utz ezazu memento bat pasatzera, memento bat, ireki itzazu begiok eta ikus ezazu, beha egiozu aurpegira: bai. Bai? Bai.

eta bai hura entzundakoan sortu zitzaizun irribarre inozoa kontzientziak ezabatuz, barkatua izanaren kontzientziak, anker.